

emaús


GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL



ekimuin

unibertsitate eredu eraldatzaileak eraikitzen
construyendo modelos de universidad transformadora

ESTRATEGIA
POLITIKO-PEDAGOGIKOA
UNIBERTSITATE
ERALDATZAILE BATENTZAT



Aitortza – ez merkataritzarako – partekatu baimen beraren arabera 3.0 material hau libre kopiatzeko. Banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, beti ere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarritutako beste obra berri bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratua baina ezin da banatu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es>

GRUPO DE TRABAJO

Koordinazioa:
Alberto Gastón

Idazketa:
Julián Márquez
Alberto Gastón
Amaia Ibarondo
Imanol Legarda

Ekarpen bereziak:
Natalia Serrano (GuanaRED)
Alejandra Boni (Ingenio - CSIC/UPV)
Rodolfo Pastore (universidad Nacional de Quilmes)
Luismi Uharte (Partehartuz - UPV/EHU)

Itzulpena:
Idoia Larrañaga

Diseinua eta maketazioa:
Imanol Legarda

Ilustrazioak:
Josune Urrutia

Argitalpena doan deskargatzeko
www.emaus.com <https://issuu.com/grupoemausfundacionsocial>

1. AURKEZPENEA

Emaús Gizarte Fundazioa (aurrerantzean EGF) gobernuz kanpoko erakundea da, irabazi asmorik gabekoa eta laikoa, bere misioa ahalduntze prozesu indibidual edo/eta kolektiboak sustatzea da, ekonomia solidarioak eskaintzen duen paradigma ardatz nagusi bezala hartuta eta gizarte esku-hartzeko ereduak garatuta, ikuspegi komunitarioetatik. Ondorioz, partaidetza plural eta kohesionatuan oinarritutako erakunde bat gara, erakundeko eta oro har, gizarte kideekin modu horizontalean komunikatuz eta koordinatuta.

Jarduera esparru honetatik, Emaúseko Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza zerbitzua konfiguratu da, ETIC (gizarte Eraldaketarako Hezkuntza, Intzidentzia eta Komunikazioa) izenarekin, proposamen alternatiboen eraikuntza parte-hartzaileerako espazio bezala, izaera integral batetik eta ipar-hego dikotomiak eztabaidan jartzen. Era berean, bokazio eraldatzaile argi bat du, gizarte justiziako paradigma baten bidean.

Azken batean, ezagutzaren eraikuntzaren eremuaren azpian dagoen logika hori haustea proposatzen dugu, gizartea ikerketa-objektu bat besterik ez den horretan eta ez agentziako eta subjektibotasun eraldatzaileko gaitasuna duen subjektu bat (jakintzen ekologia).

Intzidentziaren helburu honetatik, unibertsitate komunitatearen eremuan dugun lanean, premisa hauekin modu egokiagoan lerrokatzen ziren tresna horiek ebaluatzen hasi ziren, baita zein agente ziren giltza praktika kritiko eta eraldatzaile hauen adierazle bezala. Une honetatik aurrera Ekimuin prozesuaren aldeko apustu egiten da. Lehenengo, gure praktiken autokritika batetik abiatzen gara, lurraldera errotutako gizarte erakunde bezala; ondoren, jarduera eremuak identifikatzen ditugu, gure esperientziatik parte hartu eta intzidentzia izateko; jarraian, helburu berri hauek lortzeko elementu teorikoak eta tresna praktikoak identifikatzen ditugu; eta, azkenik, aliantzak sortu gako diren eragileekin, tokiko, estatuko mailan, baita hego-globaleko mailan.

Hemendik aurrera, modu zehatzean eraikitzeke eta eragiteko prozesua hasi zen. Hau da, hain zuzen ere, dokumentu honek azaltzen duena: gauzatzea proposatzen dugun estrategia, lortzeko, lehenengo, gizarte erakundeen eta unibertsitatearen arteko hurbilketa bat; bigarren, beste eragile batzuekin batera modu parte-hartzailean identifikatu, hau gauzatzeke dauden aukerak eta mugak; eta, azkenik, ibilbide-orri bat definitu egitura-balore batzuen arabera, bai erakundearenak bai proiektuarenak.

Jarraitu aurretik, garrantzitsua da nabarmentzea dokumentu honek ez duela eredu dogmatiko eta behin-betikoa izan nahi, irekia baizik, bai sektoreko eragileen arteko ekarpenetara eta lankidetzara, bai norabide honetan doazen proiektu ezberdinetan sortu daitezkeen aldaketetara. Azken batean, bizirik eta etengabeko eraikuntzan dagoen dokumentu baten aurrean gaude. Horrez gain, lanaren helburua Unibertsitate Eraldatzaile eredu baten bidean aurrera egiteko dauden bitartekoak eta beharrezkoak diren ekintzak zein diren jakitea, estrategia klabeetan. Hain zuzen ere, aztertu beharreko gaietako bat unibertsitateak gizartean duen papera da eta beraien artean dauden loturak. Puntu honetan, ukaezina dirudi, unibertsitateak, garrantzia duen gizarte erakunde bezala, gizartearen eraldaketan paper erabakigarria jokatzeko duela. Hala ere, geroz eta gehiago dira eskatzen dutenak unibertsitateak hausnarketa kritikoak sustatzeaz gain, bere irakaskuntza, ikerketa eta gizarte erantzukizuneko ardatzetan eredu hegemonikoari (ekonomikoa eta kulturala) alternatiba errealek barneratzea, sistema justuago eta solidarioago bat eraikitzeke.

Askotan, ahaztu egiten dugu unibertsitatearen misio nagusietako bat txertatuta dagoen gizartearen eraldaketa dela. Horretarako, ezinbestekoa da hurbiltze praktikoko bide, prozesu eta markoak eraikitzen eta sustatzen jarraitzea, unibertsitatearen eta tokiko eragile sozioekonomiko-kulturalen artean hausnarketa, elkarriketa, ikaskuntzak eta artikulazioa sustatzeko modu parte-hartzailean, unibertsitatearen gizarte funtzioari erantzuteke. Hau da, hain zuzen ere, Ekimuin prozesua: unibertsitate eredu eraldatzaileen bidean aurrera egiteke duen garrantzia adierazten duten gako eta ikaskuntza multzo bat, aipatutako dimentsioak barneratuz.

Gure proposamenak Euskal Herriko hezkuntza komunitatearen geroz eta kontzientzia gehiago duen sektore baten behar eta eskaera bati erantzuten dio, baita testuinguru honetan unibertsitateak aurre egin behar dizkion eronkei¹ ere, gure irizpidearen arabera:

1- Pribatizazio eta merkantilizazio prozesuak inposatzen dituzten irizpide, balore eta politika neoliberalak, lehiakortasuneko esparru batean.

2- Gizartearekin loturako programetara baliabideak gutxitzea eta aurrekontuak murriztea.

3- Unibertsitatea gizarte aldaketako eragile bezala duen sinesgarritasuna hondatzen duten sektore kontserbatzaileen eraso eta komunitateko hainbat sektoreren erantzun artikulatu gabezia.

Gogorarazi behar da unibertsitatea eta gizartearen arteko deslotura hau ez dela gure testuinguruarena soilik. Izan ere, hego globaleko hainbat praktika gure estrategiaren euskarri bezala hartzen baditugu, unibertsitate hedapeneko prozesuetan testuinguru aitzindari horretan, arazoa ez dago gaundituta. Munduko Gizarte Foroaren azken topaketan, Costa Rican ospatuta, bertako unibertsitateak eta CEP Alforja Sareak antolatuta, Ekimuin prozesu guztian zehar aliatu estrategikoa izan dena, nabarmendu zen hautematen dela "biraketa bat unibertsitateetan akademizismo handiago baten aldera, honek zailtasunak ezartzen ditu herriaren eta unibertsitatearen arteko erakunde-loturak finkatzeko, ondorioz, pentsatzen dugu alternatiba bat dela akademia-talde solidario, erretiratu eta aktiboekin erlazioak finkatzea, gizarte erakundeekin, eta, oro har gizartearekin komunikabide eta laguntza bideak izateko prest daudenak"².


Testuinguru eta intzidentzia marko honetatik hasi ginen garatzen estrategia hau gure ikuspegi politiko-pedagogikotik eta marrazten "izan behar lukeen unibertsitatea" gizartearekin duen loturaren berreraikuntzatik abiatuz.



Pertsonak ahaldundu aldaketa eta herritar aktiboko eragile bezala, pobrezia eta bazterketa egoera guztien aurka.



Ekonomia Sozial eta Solidarioko (ESS) formulak garatu, tokiko esperientzia produktiboak bultzatzea zentratuta dauden enpresa-alternatibak bultzatzen.



Ingurumenaren arloan duina eta osasungarria den ingurune bat defendatzea, baliabide naturalen banaketa ekitatibo eta jasangarri bat errazten duena.

¹ Erroka" hauek prozesu guztian zehar identifikatuak eta elikatuak izan ziren, lan egin den eragileek jasotako ekarpenen arabera.
² Itzulpena da. Hitzeko zita gaztelaniazko bertsioan aipatzen da. HAUSNAR-KETA KRITIKOKO TOPAKETA-TAILERRAREN sistematizazio dokumentutik atera da "Movimientos sociales e incidencia política en Costa Rica de hoy".

1.1 IKUSPEGI PEDAGOGIKOA

Intzidentzia marko honetatik abiatuz, jakintzen-ekologia zalantzan jartzetik elikatua, Ipar-Hego botere erlazioetan (ekonomikoak, epistemikoak eta kulturalak) garrantzia hartzen duena, kontzientzia hartzea sustatu dugu ez soilik Ipar-Hego ekuazio horretan sortzen eta erabiltzen diren erlazio hierarkikoen inguruan, baita gure gizartean bertan ematen diren erlazioen inguruan. Hori horrela izanik, ETIC arlotik Herri-Hezkuntzaren ikuspegi pedagogikoaren aldeko apustu egiten dugu gizarteratzearen oinarri bezala. Ikuspegi honek posible egiten du proiektuaren erdigunean kokatzea prozesuaren eraikuntza bera, alternatibak kolektiboki nola eraikitzen doazen baloratzen ikasiz eta gizarteratzeak izaera berritzaile bat hartzea posible eginez, prozesuan parte hartzen duten pertsona guztien esperientziak jasoz.

lido honetan, esperientzien sistematizazioa funtsezkoa dela uste dugu, hau da, bai sortutako tresnen elaborazio prozesua, bai proiektu bakoitzean jasotako informazioa parte hartzen duten kolektibo guztien artean etengabe partekatuak izatea. Helburua da esperientziak eta jakintzak kontrastatu ahal izatea proiektu hau etengabeko ikaskuntzako prozesu batean bihurtzeko, logika hauen arabera funtzionatzen jarraitu ahal izatea Ekimuin amaitu ondoren.

1.2. ERAKUNDEAREN IKUSPEGI POLITIKOA ³

Nazioarteko Emaús Mugimendurekin dugun pertenezkiarekin koherentzian, bere oinarritzko testuetan adierazten diren printzipioak aintzat hartzen ditugu eta ondorengoa adierazten dugu:

³ Erakundearen ikuspegi politiko hau, erakunde bertako kideekin batera eraikuntza parte-hartzaileko prozesu baten bidez eraiki zen eta ondorengo loturan eskuragarri dago: <https://www.emaus.com/files/posicion>

1. Printzipio unibertsal bezala onartzen dugu, lehenetsun eta berehalako izaerarekin, jarduera guztiak ahulezia gehien duten eta gehien sufritzen duten pertsonen zerbitzura egotea, pertsona guztien artean justizia eta bake mekanismo bezala.

2. Gure jardueretako pertsonen inguru sozio-kultural ezberdinak aintzat hartzen ditugu, eta beraien indarra aniztasunetik dator, hain zuzen ere. Hori dela eta, gure ezagutzak eta, gure baliabideak eta jakintzak partekatzeko gai gara, gure ezberdintasunekin elkarbizitza sorraraziz mugimendu bakar batean.

3. Pertsona guztiak aske sentitzea eta beraien ahotsa entzun araztea defendatzen dugu, beraien beharrak aseztatu eta elkarren artean lagunduz, ezagutzak eta baliabideak partekatuz eta trukatzuz, berdintasunez, duintasunez eta errespetuz

4. Kontzientziak esnatzea probokatzen dituzten bitarteko posible guztiak erabiltzen ditugu eta konpromiso sozial eta politikoa onartzen dugu, pobrezia eta opresio mota guztien aurkako salaketa eta borrokan oinarrituz, hauek sortzen dituzten zergatiak suntsitzea lortu arte.

5. Konpromiso honek esan nahi du Emaús, kontzienteki edo inkontzienteki, miseriaren erantzule diren horiekin guztiekin gatazkan dagoela, bereziki menderatze nazional eta nazioarteko desberdinen bitartez gertatzen den miseriaren erantzule diren horiekin.

6. Gizarte edo herri mugimenduak sustatzeko, animatzeko eta laguntzeko konpromisoa hartzen dugu, errespetatzen ez diren eskubideen beraien aldarrikapenetan.



UNIBERTSITATEA – GIZARTEA ERLAZIOA



2. IZAN BEHARKO LUKEEN UNIBERTSITATEA

Ukaezina da unibertsitateak ezinbesteko papera duela gizarteak jasotzen duen hezkuntza-alfabetatze eta alfabetatze kritiko motan, gizartearen dimentsio guztietan: ekonomia-, genero-, kulturarteko-dimentsioan, etab. Ildo honetan, estrategikoa da unibertsitate baten jarduera arautzen duten maila ezberdinetan eragitea, kudeaketa, irakaskuntza, ikerketa eta unibertsitate gizarte erantzukizuna (Bogado de Scheid eta Fedoruk: 2017). Kudeaketak demokrazia eta partaidetza printzipioei erantzun behar dio, bereziki unibertsitate publikoari dagokionez, eta guztion ongiaren norabidea izan behar du. Irakaskuntzak teoria eta praktika uztartu beharko litzuzke modu eraginkorrago batean, garapenarekin lotutako gizarte erronkei erantzuteko. Ikerketak aplikazio praktikoa eta gizarteari ezagutzak zabaltzen hobetu beharko luke; eta, unibertsitate gizarte erantzukizuna zubi bat bezala ulertu beharko litzateke gizarte konplexutasuna eta akademiaren artean, egun hautematen den subjektu/objektu dikotomia gaindituz.

Horrez gain, unibertsitateak bere egitura-rola berreskuratu beharko lukeela uste dugu, hau da, soziala. Ezin dugu pentsatu merkatuaren parametroetan oinarritzen jarraitzen duten unibertsitate ereduetan, gizarte alde batera utzita. Edo, beste modu batera esanda, Unibertsitate Kritiko Sarearekin batera (UKS) antolatutako "Hamaika Ahotz" ⁴ jardunaldian identifikatu genuen bezala, ezin dugu onartu erantzuna ematen dioten gizarte sektore pribatuak soilik osatua egotea. Are gehiago, unibertsitateak gizartearen baliabideak kudeaketa bideratzea eskatzen dugu, txertatua dagoen gizartearen desberdinkeriak gainditzeko.



⁴ <https://www.emaus.com/pdf/ekimuin/2019%2004%20HAMAIIKA%20AHOTS.pdf>



Ezin dugu ukatu, egungo testuinguruan gure gizarteak pribatizatzen eta kontrolatzen bideratuta dauden merkaturako indarrak daude, ondorioz, unibertsitateak eta ezagutza merkatuaren balio irizpideetara subsumituta daude, eta egoera honek merkatu kapitalistan “baliorik ez duten” ezagutza alternatiboaren suntsiketara eraman du.

Unibertsitate eremuan merkatu kapitalistak egun duen pisua zalantzan jartzeak ez du inplikatzeko honen existentzia agerian jartzea, ezta ikaslearen motibazioa ere lan-etorkizuna ziurtatzeko. Are gehiago, beste gaien artean, unibertsitateek lan merkatura egiten duten hurbilketa asetasun honen aldagai garrantzitsu bat bezala identifikatu da (Caballero, Lopez-Miguens eta Lampon, 2014; Gonzalez Lopez, 2003; Saraiva, 2008). Ildo honetan, unibertsitatea lan merkaturaren barneratzen den horretan, lan-etorkizunerako desesperantza murriztu lezake eta instituzioarekin asetasuna posible egin lezake.

Hala ere, hezkuntza eremuan enpresa pribatuaren gizarteratze prozesu honen aurrean, ahots ezberdinek merkantilizazio eta pribatizazio prozesu jarrai bat salatzen dute, akademia ikuspegi bat gizarte funtzio bat galduz gizarte eraldaketaren eta guztion ongiaren zerbitzura, geroz eta enpresa kutsu gehiago duen ikuspegi baten alde (Manzano-Arondo, 2011; Blum eta Ullman, 2012; Boni eta Gaspar, 2011; De Sousa, 2018; Fernandez-Liria et al., 2017).

Ildo honetan, Ekimuin markoan “De la cultura del éxito a la cultura del bien común y el buen vivir: caminando juntas hacia una universidad crítica y transformadora” (Arnos, M., Gastón, A., et al., 2019) kapituluaren idazketan parte hartu dugu. Bertan, unibertsitatearen eragina neurtzeko metrika alternatiboak proposatzen ditugu, baita lan-etorkizunaren bidean desesperantzen, unibertsitate-kalitateko ereduaren inguruko sinesmenak eta ikaslearen erakunde-asetasunaren arteko erlazioa ezagutzeko nahi duen ikerketa batean. Granadako Unibertsitateak 2019ko apirilean zehar antolatutako 7th International Congress of Educational Sciences and Development kongresuan aurkeztutako ikerketa honetan parte hartu zuten Euskal Herriko Unibertsitateko 300 ikasle (%79.9 emakume, %19.6 gizon eta %0.5 genero ez binarioa). Ikerketak adierazten du, ikasleek unibertsitate espektatibaren inguruan duen iruditeria ukapen gehiagoz erlazionatzen dela merkatura bideratuta dagoen unibertsitate batekin eta kontrahegemonikoa den unibertsitate eredu bat aldarrikatzen du. Horrez gain, datuek adierazten dute ikasleek asetasun maila altua dutela unibertsitateari dagokionez eta desesperantza ertain-altua aurrean duten lan-etorkizunarekin. Nahiago dute gizarte eraldaketara bideratuta dagoen eta bere izaera publikoa bermatzen duen unibertsitate bat, hala ere, positiboki balioztatzen dute enplegarritasunera eta merkatura bideratua egotea.

Aztertutako dimentsio guztietan, hautematen da unibertsitateak berak nahi duena baino esfortzu gutxiago egiten duela: enplegarritasunari dagokionez, gizarte eraldaketaren bidean, eta, bereziki, bere konpromisoaren bidean bere izaera publikoarekin.

Azken batean, eredu inklusiboen bidean joan nahi bada beharrezkoa da botere publikoetatik “publikoa” den horren balioa handitzea eta gizartearen konfiantza berriz hartzea Hezkuntza Publikoan. Horretarako, elkarrizketa prozesuak ireki behar direla ulertzen dugu posizionamendu etiko-politiko-pedagogikoetatik abiatuta, unibertsitateak gizartearekin duen erlazioaren inguruan hausnartzea inplikatzeko du, parametro horietatik. Oinarri honetatik, unibertsitateak beste gizarte solaskide batzuk onartu behar ditu eta baliozko bezala aintzat hartu behar ditu, gizarte konplexutasunean txertatuta dauden bezala eta gizarte kolektiboekin elkarren ondoan lan eginez.

Honek sinergiak sortzen eramatean gaitu ezinbestean, unibertsitatearen eta gizartearen artean ezagutzak elkarrekin eraikitzeke helburuarekin, eta, horrela, mundua menderatzen duten eta botere erlazio autoritarioak finkatzen dituzten paradigma menderatzaileak berriz pentsatu ahal izateko. Gizarte mugimenduekin politika artikulatuak ez dituzten, unibertsitate publikoak “erasotzen” dituzten erlazio kontserbadoreak dira.

Gure apustua erlazionatuta dago espazio intersektorialen konfigurazioarekin, eragile ezberdinen jakintzak biltzen dituztenak eta eraikuntza parte-hartzaile batetik alternatibak proposatzen dituztenak, guztiok parte garena sentitzen eta helburu komun baten bidean goazela jakinik: eraldaketa. Horrela, Ekimuin prozesuan zehar espazio ezberdinetan parte hartu dugu eta horiek sustatu ditugu, agenda komun bat

eraikiz, gure eragin eremura eramateko gai izan gara. Horrela, beharrezkoa ikusten da unibertsitate komunitatearen ezagutza eta konpromisoa handitzen joatea, Giza Garapen Jasangarriaren alde egiten duten egitura ekonomiko eta sozial justuagoak eraikitzen, hezkuntza eduki alternatibo kritikoak barneratuz (Ipar eta Hego Globaleko, gizon-emakume, jasan ezintasun ekologikoaren, etab. artean ematen diren erlazio desberdinak eta bidegabekoak ikustera ematen dituztenak), ezagutza zientifiko kontrahegemonikoaren garapena eta tresna praktikoen aplikazioa, ESS balioan jartzen dutenak unibertsitateetako akademia programetan. Unibertsitatean proposamenak planteatzeko garaian, nabarmendu beharra dugu, bere izaera baldintzatua egongo dela, gizartearekin erlazio esparru berri bat eraikitzeke kezka eta konpromisoagatik, besteak beste, apustu politiko bezala txertatuta dagoen gizartearekin.

Unibertsitate eraldatzaile bat izateko beste funtsezko baloreetako bat, eredu patriarkatu, arrazista eta neokapitalistak inposatzen dutena haustea espero duen balorea da.

Hego globaleko kolektiboetatik garrantzia jartzen jarraitzen da, jakintzen- eta arraza-kolonialismoak oraindik ere gure gizarteak menderatzen dituela. Unibertsitatea ez dago dinamika honetatik urrun, ezagutzen balidazio moduen erlazioa soslaiki kapitalista, patriarkal eta kolonialak dituelako. Unibertsitate eraldatzaile baten posizionamendua balore kritikoetatik sortua izateko, GJH 2030 helburuen markoa onartuz eraiki behar da, eta erretorika gaintzen duten alternatibak proposatuz eta gizarte bazterketa sortzen duen menderatze ardatz hirukoitz hori hausteko gai direnak.




ez kapitaita



antiarrazista



feminista




**lurraldera
errotua**



TESTUINGURU AZTERKETA > EUSKARRI TEORIKOAK > EKIMUIN EREDUA > ESTRATEGIA



EKINTZAK ETA JARDUERAK



3. EKIMUIN PROZESUAREN FASEAK

Testuinguru honen aurrean Unibertsitate Eraldatzaile eredu bat definitzen dugu: Ekimuin, non elkarrizketa, partaidetza eta adostasuna, prozesua euskarritu den hiru ezaugarri nagusienetakoak diren. Lehenengo, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren testuinguruaren azterketa bat burutu da Euskal Autonomia Erkidegoan; ondoren, ibilbide teoriko bat garatu da EGFko ETIC sailetik, gizarte eraldaketarako unibertsitate baten ereduaren alde apustu egiten duten erreferente teorikoak identifikatu dira, gure ikuspegi politiko-pedagogikoekin lerrotatuta daudenak (anti-arrazista, feminista eta ESSren ereduekin). Hemendik abiatuz, sektoreko erakundeei, Administrazio Publikoei, euskal hiru unibertsitateei eta hego globaleko eta estatuko beste parteetako pertsona erreferenteei dei egin zitzaizen Unibertsitate Eraldatzaile eredu bat eraikitzeke asmoz.

Behin eredu eraikita, adostua eta balioztatua eragile kopuru gehienarekin (Ipar eta Hego globalekoak), unibertsitate eremuan eragin nahi duen estrategia hau eraikitzen hasi zen, unibertsitatea eta gizarte elkar topatu eta atzeralikatzeke helburuarekin. Hori guztia, unibertsitateei eskatuz ezagutzaren sorrera eredu finkatuaren, errotuen, kritikoen aldeko apustu bat eta gizarte konplexutasunean txertatuta dauden eragileak aintzat hartzea aldatetako subjektu bezala eta ez iker-objektu bezala.

Prozesuan zehar apustu egin dugu metodologia parte-hartzaile, eta jarduera eta esku-hartze kokatu eta zehatzetan irudikatutako metodologia parte-hartzaile eta kritikoen alde, gizarte eraldaketara ekarpenak egin ditzaketanak, unibertsitatearen eta lurraldeari errotutako erakundeen arteko loturatik.

4. GURE HELBURUAK

- Marko bat bilatu, aurkitu eta garatu klabe estrategikoan, gizarte konplexutasunari erantzuten dion unibertsitate kritiko eta eraldatzaile bat lortzeko beharrezkoak diren urratsetan eta jardueretan aurrera egiten laguntzen dutenak.
- Kontzientzia parte-hartzaile bat garatu, lurraldera errotutako gizarte erakunde ezberdinek burutu dezaketen lanaren inguruan.
- Gizarte esperientziatik sortutako ezagutzaren legezatasuna sustatzea.
- Partaidetzarako gakoak eskaini ideia, zalantzan jartzea, beharrak eta potentzialtasunen sistematizazioaren bidez, proposatzen dugunaren arabera.
- Unibertsitate hedapen kritikoko (UHK) mekanismoak sustatzen dituzten tresna kritiko-pedagogikoak proposatu.
- Unibertsitate hedapenean eta jakintzen ekologian eskarmentua duten Hego globaleko eragileen ekarpenak barneratu.
- Espazio artikulatu interseksionalak sustatu, gizarte konplexutasunetik eratorritako erronkak lantzen dituztenak eta modu horizontalean parte hartu dezaten gizarte erakundeek, unibertsitate komunitateak, ekonomia sektoreak, kultura sektoreak, etab.

5. XEDE PUBLIKOA ETA FINKATZEKO GOMEDIOAK

Unibertsitate komunitatea ikuspegi holistiko batetik ulertzen dugu, hau da, eragile ezberdinek konfiguratutako espazio bat bezala, bakoitza bere motibazio eta behar zehatzekin. Izan ere, gure ustez heterogeneotasun honek aberastasun handia ematen dio eta erronka handi bat da, gure proposamena egokitzen gai garen neurrian, maneiitzen duen bakoitzaren kodeen arabera.

Lerro honetan, estrategia aplikagarritasun maila ezberdinetara zuzentzen da, duen intzidentziaren arabera. Lehenengo, unibertsitateko erabaki-hartze organoekin aurkitzen gara, Agenda 2030ekin irtenbide zehatzak emango genituen neurrian Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren (GEH) ikuspegi batetik. Irakasle taldeari (irakasleak eta ikertzaileak) baliabide politiko-pedagogiko multzo bat eskaintzea proposatzen dugu, akademia gizarte konplexutasunarekin konektatzeko asmoz, hezkuntza herrikoia oinarri bezala hartuta eta gizartearen eta ikasgelen artean beharrezkoak diren zubiak erraztuz. Azkenik, ikasleagoa, duen gaitasun biderkatzaile horren baitan, alternatiba errealak partekatzen ditugun neurrian subjektu eraldatzaile batean bihurtzeko. Bigarren maila batean, estrategia hau gizarte erakundeengana zuzentzen da, modu bateratuan lan egiteko.

6. ESTRATEGIA FINKATZEKO FASEAK

Estrategiak etapa edo fase multzo desberdindu bat duela uste dugu, abiapuntua (1) kontzientzia hartzea posible egiten duten ekintzen sorrera da, GEHn parte hartzen duten eragileen aldetik. Horrez gain, (2) ekintza hauek intzidentzia politikoko prozesuekin erlazionatu behar dira, (3) eta aldaketa prozesuak sustatzeko gaitasuna duten subjektu kritikoen bultzadarekin. Estrategia finkatzeko beste faseetako bat, (4) komunitatea sentsibilizatzea da argitalpenen, gure kanal digitalen difusioaren, kongresuetan, etab. parte hartzearen bidez, jakintzen ekologiako logika batean eta eragileen arteko jakintzen solasaldi batean, (5) ezagutzaren eraikuntzan parte hartzen duten guztiak aintzat hartzeko eta legezatzeko helburuarekin.

Praktika metodologiko hau, bere baitan, berritzailea da testuinguru honetan. Ekimuin ereduaren ibilbidea kontuan hartzen badugu, jakintzen Ekologian oinarritutako esku-hartzeko logika honetatik baieztatu dezakegu, dinamika parte-hartzaile eta kritiko hauek unibertsitate espektroan aldaketa esanguratsu bat direla. Eragile ezberdinen legezatzeko prozesu hauek, lurraldean intzidentzia zuzeneko gaitasuna dutenak, "tokiko mailan", lehentasunezko neurriak dira logika eraldatzailearen baitan aurkezten diren unibertsitate eredu guztian. Azken batean, mota honetako dinamikak bermatzen dituzten emaitzak sortzea bilatzen da praxian, askotariko eragileen partaidetzaren bidez soilik baieztatu daitezke, gauzatzeko baliozkoak bezala onartuak direnak.





7.7. GURE ESTRATEGIAREN ZEHARKAKO IKUSPEGIAK

Ekimuin prozesua Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren praktikatik sortzen da, eta ondorioz, paradigma honek kontuan hartzen dituen dimentsio ezberdinei (politikoak, pedagogikoak eta filosofikoak) erantzun behar dio, modu batean zein bestean. Horrela, Unibertsitate Eraldatzaileaz hitz egiten dugunean, beharrezkoa da kontuan hartzea ikuspegi ezberdinetatik, eskubideak (justizia soziala), tokikoaren eta globalaren arteko “elkarrizketa estrategikoa”, planteamendu feminista bat eta “erantzukidetasuna” garapenerako euskal GKE eta Administrazio publikoen artean; gizarte eraldaketaren bidean aurrera egiteko aliantzak sortzeko gai direnak, 2018-2021 Garapenerako Lankidetzaren Gida Planean jasotzen den bezala. Logika honi jarraituz, gure garapenean lehentasunezko posizio bat eman diegun zeharkako 2 ikuspegiak hauek dira: tokikoa-global ikuspegia eta genero ikuspegia.

tokikiko global

ikuspegia

ikuspegia

genero



tokiko-global ikuspegia

Gure estrategietan tokiko esku-hartzean zentratzen gara, proposamen zehatzen, gertuko eta errealean eraikuntza bultzatuz, baina beti testuinguru eta azterketa kritiko global batean kokatuta, bai teoriko-politiko bai harremanetik eta lankidetzatik, beste geografia batzuetan kokatuta eta bizirik dauden tokiko esperientziekin.

Proiektua nagusiki Euskal Herrian garatu den arren, hegoaldeko gizarte eragile eta kolektiboen ekarpenak jasotzen dira, izaera globaleko mugimendu ezberdinekin lerrotuta daudenak. Tokiko eragileekin izandako aliantzei dagokionez, nabarmendu nahi dugu UKS sarearekin izandako lankidetzak, modu aktiboan sustatzen duguna eta prozesu guztian zehar elkarrekin egin dugu lan erlazio estu batean.

Proiektuaren esku-hartzeko logika estrategikoan eta metodologikoan eraikuntza parte-hartzaile bat proposatzen da eta bertan nabarmentzen da CEP Alforja⁵ sarearen lankidetzak, egindako lanagatik eta hartutako erantzukizunagatik. Unibertsitate Hedapenaren alde apustu egiten duen sare honek, unibertsitatea-gizartea topaketa, mobilizazio eta lankidetzako espazio bezala ulertua, Gizarte Ekintzako ikuspegi zehatz bat izateko, errazten ari da ere Gizarte Ekintzako Unibertsitate-Hedapenaren indar eraldatzailearen prozesu parte-hartzaile eta sistematizatzaile bat, unibertsitatean bertan⁶.

Lankidetzak honez gain, partaidetza ezberdinak ditugu, Quilmes-eko Unibertsitate Nazionalako (Argentina) Ekonomia eta Administrazioa Saila, CREES Programa + ICOTEA⁷ (Ekintzaitza Sareak Eraikitzen Ekonomia Sozialean) eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Hegoaldeko Behatokia; erreferentziazko espazioak. Bertatik, estrategia hau elikatzeko ekarpenak jasotzen dira, esperientziatik abiatuta unibertsitate espazioen eraikuntzan, gizarte ekonomiaren eragileekin.

Eragile konkretuekin tokiko-global loturatik abiatuz, proiektuaren fase ezberdinetan posible dugu egitea:

- Kontzeptu, estrategia, material esanguratsuak, legezatuak eta baliozkoak eraiki Unibertsitate Eraldatzailearen inguruan ESStik, proiektuan zehar "aurkituko" diren eremu geografiko ezberdinetarako.
- Egungo eredu sozioekonomikoaren aurrean zergatiak eta irtenbideak aztertu eta hausnartu, ikuspegi partekatuta eta ezberdin batekin, kontuan hartuz eredu horren ingurumen eraginak, eragin sozioekonomikoak eta eragin emozional eta identitario globalak eta tokikoak.
- Gaitasunak batu, ahuleziak identifikatu,

beharrak eta interesak definitu, eta gizarte ekintzako lerro mobilizatzaileak bultzatu.

- Kolektiboa, komunitatea eta naturaren inguruko erlazio eta sentitze ezberdinak eta partaidetza eta mobilizazio estrategia eta indar ezberdinak kontuan hartu.
- Ipar-Hego binomio klasikoa ezabatzeko edo desegiteko aurrera egin.

Era berean, ikuspegi honek posible egiten du jakintza eta esperientzia praktikoen eta bizipeneko elkar truke marko kualitatibo bat, hausnarketa honek ikaskuntza partekatuta, baliozko eta bereizleeta bideratzeko, Unibertsitate Eraldatzaileko proposamen alternatiboen eraikuntza kolektiborako eta abian jartzeko (Coraggio eta Quiroga Diaz, 1998), ESSren proposamenekin lerrotuta tokiko-global ikuspegiarekin.

⁵ Erakunde honek Costa Ricako unibertsitateari aholkularitza eskaintzen dio eta Munduko Gizarte Foroaren antolakuntzan modu aktiboan parte hartu zuen

⁶ Gure testuinguruan, Unibertsitate-Hedapena Unibertsitate Gizarte Erantzukizuna (UGE) bezala kontuan hartzea zentzuzkoa dirudi, dokumentu honen 9.kapituluan garatzen da.

⁷ <http://observatorioess.org/>



genero ikuspegia



Genero ikuspegia zeharkako gai bat EGFn, genero diagnostiko baten eta genero berdintasunaren aldeko barne Plan Estrategiko baten emaitza bezala, 2008 urtetik aurrera. Horrela, EGFn identifikatutako, planifikatutako, diseinatutako eta exekututako ekimen guztiek genero dimentsioa barneratu behar dute. Hurbilketa politiko honetatik ulertzen dugu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna feminismotik soilik lortuko dugula. Hala ere, ez dugu ulertzen unibertsitate bat eraldatzailea izan nahi duena bere funtzionamenduan postulatu feministak barneratzen ez baditu. Horrela, hain zuzen ere, Ekimuin ereduari identifikatu zen, genero dimentsioari beharrezkoa zen zeharkakotasuna emanez, gizarte aldaketak sustatzeko.


Ikustera emateari dagokionez, estereotipo aldaketa dekonstruzio prozesu konplexu eta gradual bat dela onartzen dugu, ondoren egungo ezagutzak eta praktikak berreraikitzeke, baita bizitzaren jasangarritasunerako beharrezkoak diren alderdi guztiei berriz esanahia emateko eta balioztatzeke prozesu bat ere, bertan genero ikuspegiak lehentasuna du. Datuak begiratzen baditugu, erakusten dute unibertsitateko erabaki eta zuzendaritza arloetan eta irakaskuntza eta ikertzaile partaidetzan emakumeen ordezkari baxua dagoela (bereziki ikasketa ez humanistetan. Ikus 2.2 grafikoa), genero ikuspegia duten eduki eta metodologia oso gutxi dago, ikasketa feminista eta

generokoen ekarpenen onarpen txikiagoa dago, eta, genero estereotipoak edukiez gain, erabiltzen diren praktika eta metodologietan errepikatzen dira. Fase honetan, aurrekoari jarraituz, emakumeak eta bere erakundeak ikustera ematea eta onartzea sustatzen da, garapeneko subjektu bezala estrategia honen bidez, Mugarik Gabe erakundearekin lankidetzan islatua, besteak beste.

Ikuspegi feministak barneratzeak posible egiten du Ekimuin prozesuarekin koherentzia handiagoa izatea, Paulo Freirek egiten duen apustu politiko-pedagogikoarekin lerrotua dagoelako, "(...) intersektionalitatean gehiago aurrera eginez (...) planteatzen du (...) menderatze modu ezberdin asko nola konektatzen diren "menderatze matrize" bat osatzeko.

⁸ "Científicas en cifras 2017" (Emakumeen nolabaiteko presentzia aztertzen duen argitalpena Zientziaren eremu ezberdinetan Espainian) txostenak adierazten du, unibertsitatean emakumeek gehiengoa badira ere %21 dira katedradun maila lortu dutenak. (17 orr.)


⁸ Kristalezko sabaiaren eboluzioa unibertsitate publikoan arlo zientifiko-teknologikoaren arabera. Ikasturteak 2013-14tik 2016-17ra



8. GURE EKINTZAK

Prozesu honek hasieratik nabarmendu nahi izan du, gizarte mugimendu eta erakundeek unibertsitatearekin duten koordinazioa eta partaidetza bateratuak lotura beharrezko bat izan behar duela, gizarte eraldaketa akademia-eremutik gauzatu nahi bada. Bi norabideko lotura hau "asmoen eskutitz" bat izateaz gain, praktika metodologiko bat izan behar du, ikasleak lehentasunezko leku bat betetzen duelarik, teoria praktikan garatzen duelako, ikasleekin batera.

unibertsitatea



**GKE eta gizarte
mugimenduak**

ikaslegoa

Gure jarduera ardatzak triangelu metodologiko honetatik abiatzen dira, ondorengo paragrafoetan izendatzen ditugu:

formazio eta ikerketa

Edozein formazio prozesu, formala nahiz informala izan, prozesu parte-hartzaile bat izan behar du irakasten eta ikasten duenaren artean, Freire irakasten, parafraseatzen, munduan dugun papera zalantzan jartzen duen posizio kritiko batetik. Baina, egun bizi garen mundu testuinguru geopolitikoan “unibertsitate publiko eta pribatua ez dago testuinguru honetatik kanpo, ezta errealitate sozioekonomikotik kanpo eta erronka asko ditu aurrean”, prozesu honetan zehar editatutako Tokikoa-Globala Ikuspegia⁹ argitalpenean adierazten dugun bezala.

Irakaskuntzan banatu ezin daitekeen beste eremu bat ikerketa da. Bertan aritzen dira irakasleak eta ikasleak arazoak identifikatzen eta irtenbideak bilatzen, ondoren zabaldu ahal izateko, eraldaketaren alde egin dezake soilik:

- Ikerketen eragina modu formalean onartzea eta balioztatzea lortzen bada, unibertsitate sistema egun menderatuta dagoen meritokrazia gainditzen duten metrika alternatiboetatik. Eremu honetan nabarmendu nahi dugu Valenziako Unibertsitate Politeknikoarekin batera burututako lana, sozial mailan arduratsua den ikerketaren paradigma eskaintzen duen aukeren leihoen inguruan,

“Metriketatik haratago; sozialki arduratsua den ikerketa baterako proposamenak eta hausnarketak” argitalpenean sistematizatua (Boni, A., 2019)

- Ekintza parte-hartzailea proposatzen eta bultzatzen bada, lurraldera errotuta dauden erakundeekin. Irakasleen sektore batek defendatzen duen posizio hau prozesu honetatik erantzun zaió aliantza ezberdinen, partaidetza bateratuen eta lankidetzak espazioen sustapenaren bidez UPV/EHU, Mondragon Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko ikertzaileen, gizarte-ehuneko erakundeen eta unibertsitateko langileen artean, berezi Latinoamerikakoak.

Espazio hauetan sustatu ziren: lankidetzak argitalpenetan, mintegiak eta beste hainbat jarduera antolaketa, Euskal Unibertsitate Sistemari (EUS) eragiteko helburuarekin, Unibertsitate Gizarte Eraldaketa gaian.



Hori dela eta, formazioarekin (akademia-ezagutzako ekoizpenaz haratago ulertua) eta ikerketaren erlacionatutako guztia modu estrategikoan landu da Ekimuin prozesuan. Proiektuaren lehenengo fasean 26 esku-hartze gauzatu ditugu, hau irakasleei egindako elkarrizketei gehituta, oinarrizko material pedagogiko bat sortzea posible egin du identifikatutako beharretara egokitua, Unibertsitate Eraldatzaile baterako. Material hau Hego globaleko erreferentziako erakundeek kontrastatu dute, beste ahots eta jakintza batzuk barneratzeko.

Esku-hartzeko logika bera jarraitu da prozesuaren bigarren fasean zehar, proposamen pedagogikoan unibertsitateak aurre egin behar dituen erronka zehatzen inguruan hiru jarduera eremu konkretuetan, pobrezia eta desberdinkeria, gizarte kohesioa eta ingurumen jasangarritasuna. Horrela, bigarren fase honetan zehar, hezkuntza formaleko 32 saio burutu dira graduko eta masterreko ikasleekin, bai ikasgelan bertan bai Emaús Social Faktory-ko instalazioetara egindako bisiten bidez.

Ekimuin zenbakitan

Ekimuin II proiektuaren lehenengo fasean zehar guztira parte hartu zuten (2018 urtean zehar)

414 pertsona eta horietatik.

262 emakumeak izan ziren.

2019 urterako partaidetza igo egin zen.

464 partaideetara, horietatik

313 emakumeak ziren.

Horrez gain, unibertsitateak ikasgeletatik ateratzeko gure defentsa horretan, unibertsitate ikasleekin formazio saioak burutu ditugu unibertsitate-kanpusetik kanpoko testuinguruetan. Nabarmendu nahi dugu Erasmus+ ikasleekin gauzatutako formazio saioa Abarka GGKE antolatua, bertan parte hartzera gonbidatuak izan ginen abuztuan eta abenduan; partaidetza honetatik barneratu ahal izan dugu beste testuinguru batzuetako ikuspegiak.

Edozein kasutan, esku-hartze bakoitza ebaluatua eta sistematizatua izan da, ondorioz ikaskuntza esanguratsu multzo bat ateratzea posible izan dugu eta

hauek dokumentu honetan txertatu ditugu zeharkako moduan; hauek, multzokatuta, ondorengo eskaerei erantzuten diete:

- Lurraldera gerturatu.
- Gizartea ez izatea merkatuaren sinonimoa.
- Tokiko mailatik globalizazioaren errokei aurre egin.
- Birsortu bolada neoliberal eta pribatizatzaileari aurre egiteko.
- Txertatua dagoen testuinguruaren kultura-erreferente bat izatea.
- Bere atea irekitzea tokiko eragileen ikuspegia barneratzeko, ezagutzaren eraikuntza parte-hartzailean.
- Leku garrantzitsu batean kokatzea patriarkatuaren aurkako borrokan.
- Ikertzaileei zuzendutako merituko logikak aldatzea, ikerketa eraldatzaile bat eta ez hain arauzkoa posible egiteko eta aintzat hartzeko.
- Gradu Amaierako Lanen (GRAL) eta Master Amaierako Lanen (MAL) balorazio irizpideak malgutzea, lan hauek ikuspegi eraldatzailetik landu nahi dituzten ikasleentzat.





sentsibilizazioa eta mobilizazioa

Sentsibilizazioa ulertzen dugu jarduera konglomeratu bat bezala, bidegabekoak diren egoera horien aurrean atentzioa jartzea bilatzen dutenak, adibidez, pobrezia errotik kenteagatik borroka, genero, arraza eta klase bazterketa, besteak beste.

Hala ere, kontzeptu hau ekintza zehatzik gabe pentsatzen bada abstrakzioan gera daiteke. Izan ere, ezinbestekoa da sentsibilizazioa mobilizazioarekin elkartzea hausnarketa kritikoko prozesu batetik, bere baitan ahalduz elementu bat delako. Parametro hauetatik abiatuz bilatzen da, giza eskubideen urraketako ardatz horiek ezagutaraztea, ekoizpen neoliberalerako erudura lotuta eta bazterketa ekonomiko sortzeaz gain, genero bazterketa eta bazterketa kognitiboa sortzen dutenak. Esparru honetan, komunikazio eraldatzaile eredu bat hautatzen dugu, Ekimuin prozesu guztian zehar bildutako esperientziatik abiatuta dossier batean garatu dugu. Komunikazioak hurrengo ezaugarriak izan behar ditu:

1. Orientazio kritikoa eta konpromisoa praxi eraldatzaile batekin.

2. Metodologia parte-hartzaileak eta kokatuak.

3. Diziiplina-artekotasuna, hibridazio teoriko eta kultura ikuspegia.

4. Komunikazio eredu nagusien aurrean kritiko.

Horretarako, aldika, ikustera emateko eta salatze kanpainak burutzen ditugu gure plataforma birtualetan eta ikasgeletan, unibertsitate kolektiboa eta euskal gizarte zibila mobilizatzeko helburuarekin. Ekintza hauetako bat Friday For Future mugimenduarekin batera auto-eraturako kanpaina bat izan da Donostian. Bertatik hainbat ikaskuntza multzo bat atera genituen eta estrategia hau burutzeko garrantzitsuak izan ziren; era berean, alderdi hauetan unibertsitateak duen jarrera pasiboa agertu zen, baita edukien zaharkitzea egungo testuinguruaren arabera ere. Baina, agerian jarri zen ere, baldintza hauetan ere legezko tresna eraldatzaileak daudela, GRAL/MAL bezala, teoriatik praktika gerturatzea posible egiten duten bezala, sentsibilizazio espazio bat ere posible egiten dute.

Hain zuzen ere, garrantzia ematen diegu ekintza ez formalei, sentsibilizazio indar handia dutelako, baina berriz ere, oso interesgarria izan da horietara nola iritsi behar den (marko kontzeptuala elkarrekin finkatu, talde lana, exekuzio rol banaketa, komunikazioa, sistematizazioa, etab.). Hori dela eta, auto-eraturako 5 jarduera sustatu ditugu, hauetan benetako protagonistak ikasleak beraiek dira, gure rola ekintza hauetan bideratzaileak izatea izan da.



Hamaika Ahots

Hamaika Ahots

Hamaika Ahots

Azkenik, nabarmendu nahi dugu Hamaika Ahots jardunaldiaren antolakuntza bateratua UKS sarearekin. Bertan, 70 pertsona baino gehiago parte hartu zuten eta eraikuntza parte hartzaileko egiazko ekintza bat izan zen. Open-space metodologia batetik planteatua, ekintza honen bidez, goiz osoan eztabaidatzeko aukera eskaini zuen, unibertsitate publikoak aurre egin behar dituen erronken inguruan, guztion ongia eta gizarte justizia sustatzeko.

Hamaika Ahots jardunaldiaren antolakuntza bateratua UKS sarearekin

Jardunaldiaren konklusioa Hamaika Ahots

Hamaika Ahots

DIAGNOSTIKOA

Hamaika Ahots

(DES)HUMANIZAZIOA

Langileen atomismoa eta deshumanizazioa.

Hamaika Ahots

Partaidetza

Partaidetza gabezia, irakasleen eta ikasleen erantzukizuna.

Hamaika Ahots

Espazioak

Ikasle-kontseiluek erakunde diskurtso hegemonikoak errepikatzen dituzte

Hamaika Ahots

Desmobilizazioa

Eskakizun burokratikoa jarduerak antolatzeko. Unibertsitateak eta ikasle-elkarteek ez dituzte unibertsitate-bizitza eta mobilizazioa sustatzen. Komunikazio arazoak GGKEn jardueren eta ekintzen inguruan informatzeko garaian.

Hamaika Ahots

Euskara

Euskarak partaidetza eta mobilizazio oztopatzen die atzerritarrei mobilizatzeko garaian. Material gutxi euskaraz. Euskarazko ikasketen ospe baxua.

Hamaika Ahots

Hamaika Ahots

Hamaika Ahots

Kolektibitate
Norbanakoaren lorpena saritzen da, kideen arteko lehia sortuz. Irakasleen arteko lehiakortasuna, sinergiak eta aliantzak finkatzeko zailtasuna, ondorioz hezkuntza eta ikerketa pobretzen da.

Hamaika Ahots

Unibertsitatea-Gizartea

Kalitatea puntuatzen edo neurtzen duten hedapen-irizpideak ez daude. Gizarte zibil antolatuak ez du intzidentzia gaitasunik irakaskuntza eta ikerketa irizpideetan, enpresek ez bezala.

Hamaika Ahots

Feminismoa

LGTBI+ ikuspegiaren gabezia protokoloan. Unibertsitateko organo, printzipio eta egitura multzoan daude.

Hamaika Ahots

Ikuspegi kritikoa

Irakaskuntzan eta ikerketan barneratzen, nahiz eta UPV/EHUren printzipio bat izan.

Hamaika Ahots

Irakaskuntza

Irakasleen ebaluaziorako ikasleen irizpidea nekez hartzen da kontuan. Berrikuntza pedagogiko gutxi.

Hamaika Ahots

Irakaskuntza

Irakasleen ebaluaziorako ikasleen irizpidea nekez hartzen da kontuan. Berrikuntza pedagogiko gutxi.

Hamaika Ahots

Irakaskuntza

Irakasleen ebaluaziorako ikasleen irizpidea nekez hartzen da kontuan. Berrikuntza pedagogiko gutxi.

Hamaika Ahots

Irakaskuntza

Irakasleen ebaluaziorako ikasleen irizpidea nekez hartzen da kontuan. Berrikuntza pedagogiko gutxi.

Hamaika Ahots

Hamaika Ahots

Hamaika Ahots

PROPOSAMENAK

Hamaika Ahots

(DES)HUMANIZAZIOA

Unibertsitate taldea garbiketa-langileei dagokionez, euren lana balioan jarri. AZPekin aliatu/elkartu eta zaintzen inguruan hausnartu ikuspegi horretatik. Psikologia zerbitzuaren aktibazioa. Erlaziokoa, norberaren garapena eta lan zoriontasuna bultzatu: taldeko lantzeko espazioa eman, talde-tutoretzak akademikoaz haratago gaiak lantzeko.

Hamaika Ahots

Partaidetza

Herri-hezkuntzaren pedagogien alde apustu egin.

Hamaika Ahots

Espazioak

Ikasleek auto-eraturako espazioak. Ikasleei ahotsa emateko espazioak. Ikasleak, irakasleak, AZP, garbiketa-langileak, segurtasuna, etab. erlazionatzeko dinamikak. Aisialdi ekintzak Unibertsitatean. Eskuragarri eta publikoak diren espazioen mapatze bat burutu.

Hamaika Ahots

Desmobilizazioa

Aldarrikapenak identifikatzeko, aztertzeko, definitzeko eta burutzeko galde-sortak sortu.

Hamaika Ahots

Euskara

Euskara ikastaroak eskaini, doan eta eskuragarri. Kanpo ordezkaritza euskalduna %50 bermatu hitzaldiak antolatzeko garaian. Materialak euskara itzuli.

Hamaika Ahots

Hamaika Ahots

Hamaika Ahots

Kolektibitatea
Pentsamendu kolektiboa bultzatu Unibertsitatea babestu guztion ongia bezala Erakundearen horma dekonstruitu jakintzaren igorle bezala eta ez ikastun bezala

Hamaika Ahots

Unibertsitatea-Gizartea

Proiektu komunitarioak bultzatu eta sustatu. Gizarte alderdiak eta eragileak barneratu ikerketan. Hezkuntzaren eremuan lan egiten duten eta jakintzen ekologiaren alde apustu egiten duten GKEn lana bultzatu eta beraiekin lan egin.

Hamaika Ahots

Feminismoa

Genero eta berdintasun formazioa barneratzea irizpide bezala, bai irakasle eta bai ikasleentzat. Gizarte protokoloa eraso sexisten aurrean. Ekintza zuzenak unibertsitatean. Sentsibilizatu eta 0 tolerantzia finkatu. Portaera matxistak salatu ahal izateko egiturak. Ikuspegi kritikoa.

Hamaika Ahots

Irakaskuntza

Irakasleen ebaluaziorako ikasleen irizpidea nekez hartzen da kontuan. Berrikuntza pedagogiko gutxi.

Hamaika Ahots

Irakaskuntza

Genero eta berdintasun formazioa barneratzea irizpide bezala, bai irakasle eta bai ikasleentzat. Gizarte protokoloa eraso sexisten aurrean. Ekintza zuzenak unibertsitatean. Sentsibilizatu eta 0 tolerantzia finkatu. Portaera matxistak salatu ahal izateko egiturak. Ikuspegi kritikoa. Giza Eskubideekin konpromisoa. Gure pribilegio propioak identifikatu. Metodologia kritiko eta parte-hartzaileen aldeko apustu egin. Hegoaldeko ikuspegia barneratu irakaskuntzan eta ikerketan.

Hamaika Ahots


Irakaskuntza

Irakasleen ebaluaziorako ikasleen irizpidea nekez hartzen da kontuan. Berrikuntza pedagogiko gutxi.

Hamaika Ahots

Irakaskuntza

Pedagogian beharrezko formazioa irakasleentzat. Lehiakortasuna gaia modu esplizituan landu. Irakaskuntzarentzat ebaluazio egokituagoa. Irakasleen enpatia sustatu. Material guztia digitalizatu doan eskuratu ahal izateko.



GRAL/MAL tradizionalen aurrean alternatiba bezala eta gizarte eraldaketarako hezkuntzaren tresna bezala, lan elkartuaren eta ikaslegoaren, gizarte erakundearen eta irakasleen arteko laguntzaren bidez, EGFra gerturatzeko diren ikasleak bultzatzen eta laguntzen ditugu lan hauek burutzera ikuspegi eraldatzaile batetik, beharrezkoa dutelarik eredu alternatibo ekonomikoak ikustera ematea, genero ikuspegia izatea eta jakintzen ekologiaren begirada izatea. Marko honetan beste erakunde eta ikasleekin batera parte hartu genuen, UKS sareak antolatutako lau jardunaldietan. UKS sareak mota honetako lanak eraldatzaileak izan daitezela apustu egiten du; jardunaldietan unibertsitateak aurre egin behar dien erronka multzo bat identifikatu zen.

Lerro honetan eta Ekimuinen marko horretan, GRAL eraldatzaileetan amaitu ziren praktika prozesuak laguntzen ditugu. Horien artean nabarmentzen dugu, euskal unibertsitateetan aniztasun sexu-afektiboa lantzen zuen prozesu baten garapena, dokumentua aurkezteaz gain erakunde honek antolatutako lantegi bat elikatu zuten 2019ko apirilean eta Ekimuin¹⁰ saileko hirugarren dosierarekin amaitu zen, genero eta aniztasun sexu-afektiboa lantzen duena.

Dokumentu honetan agerian jartzen da “euskal unibertsitateetan (...), bertan eredu heteronormatiboaren nagusitasun bat eta genero estereotipoen errepikapen bat nabarmendu zen; baita Sexu eta Genero Aniztasuna (SGA) barneratzeko konpromiso erreal baten gabezia ere akademia eremu formalean eta eremu informalean sustatzeko”. Kolektiboak Unibertsitateari egindako kritika nagusia da, eraldatzailea izateko asmo garbirik ez duela, GRAL/MAL lanen eta praktiken izaera eraldatzailea, ebaluazioko oinarritzko irizpide bat bezala barneratzen duen plan gidari bat ez duelako eta irakasleei beharrezkoak diren bitartekoak eta denborak ematen ez dizkielako; horrela, praktika egokiak departamentu zehatz batzuetako langileen borondatearen menpe daude. SGAREN bultzadarako egitura zehatzen gabezia, eraldatzailea gakoan lan egiten duten pertsonak onartze gabeziarekin batera doa.

Edozein kasutan, GRAL/MAL lanek gizarte eraldaketako tresna bezala eskaintzen duten aukera baieztatzen dugu, modu estrategiko batean lantzen diren bitartean.

Horretarako, ikaslea-irakaslea-GGKE/gizarte mugimenduak triangelua hartzen dugu berriro, akademia zehaztasuna gizarte beharrekin konbinatzen

duen marko teoriko baten eraikuntza parte-hartzailerako. Horretarako beharrezkoa da koordinazio/ezagutzako gutxiengo maila bat izatea inplikaturako aldean artean, sare-lana (eta honek inplikaturako duen guztia -konfiantza, horizontaltasuna, elkarrizketa, etab.) ezinbestekoa da.

Jarraian, metodologia eraldatzaileen azterketa bat proposatzen dugu, Hegoaldean inspiratuak baina tokiko testuingurura moldatuak. Kasu honetan, erronka nagusia prozesuan zehar akademia zehaztasuna mantentzea lortzea da.

Azkenik, funtsezkoa iruditzen zaigu gizartearen honen itzulketari bat egitea, ezagutza transferentzia bat inplikaturako aldeei, jarraitutako prozesuari zentzua emango diotelarik. Hemen garrantzia berezia hartzen du jarraitutako ikasketen sistematizazioko estrategiak, emaitzen aurkezpena modu eskuragarrian, zientzia irekiaren inguruan ematen ari den garapena, etab.



9. UNIBERTSITATEAREN GIZARTE ERANTZUKIZUNA: AUKERA LEIHO BAT

Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna (UGE) aukera leiho bat izan behar du ezagutza sortzeko lankidetzak praktikak sustatzeko, unibertsitatearen eta gizarte izaerako erakundearen artean.

Gizarte erantzukizunaren gainean euskal unibertsitateek egindako lana zehaztasunez begiratzen badugu, gai honek unibertsitate agendan leku garrantzitsu bat betetzen duela ikus dezakegu, Espainiar Unibertsitateetako Errektoreen hitzaldian esandakoarekin lerrokatua, Unibertsitate Estrategia 2015 (EU2015) Hezkuntza Ministerioarena, bat egiten dute UGE laneko ardatz nagusi bezala hartu behar dela.

Izan ere, UGEz ulertzen denaz kontzeptualizazio teoriko bat ematen da: "(...) UPV/EHUrentzat Unibertsitate Gizarte Erantzukizunak Garapen Jasangarriarekin konpromisoa duen kudeaketa politika bat zabaltzea inplikatu du, bai formazioa ukitzen duena, bai ikerketa, ezagutzaren transferentzia eta unibertsitate bizitzaren egunerokotasuna ukitzen duena. Era berean, ildo honetan, lortutako aurrerapenak gizarteari erakustea da.

Ildo honetan, 2019-2021 Plan Estrategikoan aldarrikatzen da (...) UPV/EHUk etorkizunari begira aurre egin behar dion erronketako bat dela "aurrerapen gabezia gizartearen beharretara" eta Erakunderen helburuetako bat dela "Unibertsitatea bihurtu garapen jasangarria, inklusioa, berdintasuna eta gizarte konpromisoa bultzatzen duen erakunde batean". Azken batez, lurraldeko unibertsitate publikoaren beraren informazioa eskuratuta ikus dezakegu, gizarte deskonexio bat onartzeaz gain erakundearen egitura-konpromiso bat duela ikusten da, hain zuzen ere, berarekin konektatzeko.

Laburbilduz, baieztatu dezakegu gai hau unibertsitate publikoaren misio eta baloreen arteko funtsezkoa elementu bat dela, nahiz eta hau ez izan barneratzen duen ardatz nagusi bakarra.

Mondragon Unibertsitateari dagokionez ikus dezakegu, bere baloreetan UGE barneratzen duela "(...) Egiten jakitea eta metatutako ezagutzak transmititzeko modu bat dela Unibertsitate barruan eta kanpoan, aberastasunaren banaketa solidario modu bat da, gertuko ingurunean nabarmen eragiten, hobekuntza eta garapen horrekin solidario sentitzen garelarik".



Iturria: Josune Urrutia, proiektuaren amaiera jardunaldiaren irudi grafiko (abendua 2019)

emaús

ekimuin



Iturria: Josune Urrutia, proiektuaren amaiera jardunaldiaren irudi grafikoa (abendua 2019)

10. IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ARDURATSUA

Akademia eremuan herritarren eta erakundeen partaidetza islatua ikus daitekeen beste dimentsiotako bat Ikerketa eta Berrikuntza Arduratsua da (RRI bere ingeles singletan). "Leiho hau (...) elkarlanekoak diren eta hainbat aktore dituzten ikerketa eta berrikuntza prozesuak bultzatzeko dei argi bat da. Berriz ere, gizarte erakundeek paper garrantzitsua izan dezakete ikerketa horretan zer eta nola burutu behar den zehazten" (Boni, A., 2019).

Kontzeptu honen helburua, UGE bezala, komunitate zientifikoaren eta gizartearen artean dagoen distantzia murriztea da, gizarte zibiletik eratorritako interes talde ezberdinek, berrikuntza eta ikerketa prozesuetan modu bateratuan lan egitea sustatuz. Eredu hau Horizonte 2020 programaren zeharkako gai bat da eta aktore ezberdinen artean lankidetzako mekanismoak sortzea bilatzen du, egungo gizartearen espektatibei eta eskaerei aurre hartzen dien ikerketa sortzeko.

Testuinguru honetan, RRIk 6 politika-agenda ditu ikerketa eta berrikuntza prozesu guztian kontuan hartu beharrekoak:

- Herritarren partaidetza, aktore ezberdinak ikerketa prozesuan nahas daitezen sustatzeko, prozesuaren hasieratik hasi eta garapena eta emaitzak lortu arte.*
- Genero berdintasuna lan-taldeetan gizonen eta emakumeen arteko oreka sustatzeko.*
- Hezkuntza zientifikoa, hezkuntza prozesuak hobetzeko eta gazteen arten bokazio zientifikoak sustatzeko.*
- Integritate zientifikoa sustatzeko etika, onartezinak diren ikerketa praktikak prebenitzeko eta ekiditeko.*
- Informazio zientifikora sarrera irekia hobetzeko, interes taldeen arteko lankidetzak eta hizketaldi irekia gizartearekin.*
- Gobernantza akordioak erantzukizun partekatua sustatzen dituzten tresnak eskaintzeko interes talde eta erakundeen artean.*

Politika agenda hauek nahikoa ez direla jakin dakigun arren, europar ikerketako programa nagusienak gai hauek zeharkako moduan barneratzea, aurrerapen bat da bere baitan, eta gai nagusiak dira gizarteak aurre egin behar dituen erronka handiei aurre egiteko eta unibertsitateak aurre egin behar dituen, etika mailan arduratsua, jasangarria eta desiragarria den ikerketa eta berrikuntza batetik.

unibertsitatea

gizarte


arrail honen aurrean?

UGE RRI

11. GIZARTE EKINTZAREN EKARPENAK ESTRATEGIAREN ARDATZ NAGUSI BEZALA

Testuinguru honetan, unibertsitateko gizarte erantzukizunak jarduera trebea eta eraginkor bat eskatzen du, gizartea bizitzen ari den eraldaketako beharrei erantzuteko, bere oinarriko funtzioen bidez: irakaskuntza, ikerketa eta gizarte hedapena/proiektzioa. Funtzio hauek finkatu egin behar dute justizia soziala, solidaritate eta ekitatea lortzeko, erantzun arrakastatsuak eraikitzearen bidez, giza garapen integrala sustatzeak inplikatzeko dituen erronkei arreta emateko (Guillen, 2012).

Aurreko ataletan aipatu den bezala, gure esperientziatik, irakasleekin dugun harremanetik, eta hego globaleko eragileekin dugun loturatik, estrategiaren ardatz nagusia gizarte ekintza edo/ eta unibertsitate hedapena dela uste dugu, eta, hori gauzatzeko aukera leihoak daudela (UGE, RRI, GJH 2030). Estrategiaren "bizkar-hezur" hau, Unibertsitate Eraldatzaile baten oinarri bezala aipatzen dugun baloreetan euskarritzen dena, Ekimuin prozesuaren hasieratik aritu gara garatzen eta CEP Alforjaren (Costa Rica) lankidetzari esker, euskal zein hego globaleko unibertsitate sistemako eragileek parte hartu zuten, Online Foro baten esparruan jaso ditugu ondoren adierazten diren puntuak, guretzat ezinbestekoak direnak:



logika eta erlazioa unibertsitateen misio eta balore etikoekin

- 1.** Gizarte ekintzan erlazio artikulatuen bidez unibertsitateetan espazio irekiak sendotuko dira, eskualde ezberdinak ezagutzeko eta bide batez, jakintzen ekologia eraikitze formak eta moduak lantzeko, partaide beraien aldetik eta euren prozesuetatik.
- 2.** Unibertsitateen eta gizarte konplexutasunaren arteko sinergietatik abiatuz, ezagutzen dibertsifikazioa sustatzen duten erlazioak irekitzen dira. Horretarako garrantzitsua da hegoaldeko epistemologietan sakontzea, ekintzan sortutako ezagutzen balioztapen moduak sortzeko, kolonialismoa, kapitalismoa eta patriarkatuaren aurkako konpromisoa duen ekintza horretan. Elementu hauek sakontzea lortzen bada aliantza alternatiboen eraikuntzaren bidean izango gara, konfiantzan oinarrituta behetik hasita, aniztasun plurala eta gizarte emantzipazioko ikuspegi batekin konprometitua.
- 3.** Gizarte ekintza ulertu beharra dago irakaskuntzan eta ikerketa iturrian egon behar duten ezagutzen parte bezala, baita pentsamenduaren eta diziplina-arteke abiapuntu, irteera bezala. Gizarte ekintza auto-eraketa komunitarioaren sendotasunarekin konpromisoa izan behar du, aniztasuna kontuan hartzen duten prozesu parte-hartzaileen bitartez

- 4.** Gizarte Ekintzak eskatzen du prozesuen partaideek gizarte eraldaketarekin kontzientziario, formazio eta konpromiso maila handiagoa izatea. Garrantzitsua da bultzatzen diren proposamenak elkarrizketa parte-hartzaileetatik abiatzea.
- 5.** Garrantzitsua da ekimenak sistematizazio prozesuekin lotzen dituzten politikak bultzatzea, baita material arin eta funtzionalen ekoizpenaren ere, proposamenak kokatzea posible egiten dutenak eta parte hartzen den espazio ezberdinen erabakien oinarri bihurtzea, tartean dauden instantzietatik.
- 6.** Errektoreordetzen arteko artikulaziorako eta koordinaziorako espazioak zehaztu, prozesu elkartuak eta erabaki bateratuak ezartzeko.
- 7.** Unibertsitate hedapena irakaskuntzaren baldintza berdinetan kokatu, balioztatzen Gizartearen eta Unibertsitatearen arteko loturako espazio nagusia esan nahi duela.
- 8.** Akademia pentsamendua eraiki ahal izateko behin eta berriz errepikatzen den behar bati erantzutea, hedapeneko praktikan eskuratutako aberastasunetik abiatuz, posible egiten duen esperientzien sistematizazioaren inguruko metodologia eta ikuspegi bat proposatuz, hedapeneko prozesuetan bizitako esperientziaren deskribapenean eta berreraikuntzan zehaztasun bat eskatzen duen neurrian, eta

kontzeptuzko eta teorizazioko galdetze aukerak irekitzen dituen neurrian, esperientzian adierazten diren fenomenoetatik abiatuz: testuinguru ekonomiko sozial eta kulturalak, unibertsitatearen rola, ikerketa proiektuetara irekitzen diren gaiak, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuen ulermena, akademikoaren eta komunitateetan bizi diren pertsonen arteko jakintzen elkarrizketaren bidez sortzen direnak.

9. Lantegi hauetan burutzen den formazio praktikoa eta teorikoa, sormenezko lanketa eta lanketa berritzailea egitea posible egiten duena, ezagutza akademikoaren beste ekoizpen modu batzuei dagokionez.

10. Unibertsitateak komunitateekiko lotura honetan egiten duen lana berriz balioztatzea eta ikaslerian sortzen duen kezka arazo hauen aurrean hartzen duen rolari dagokionez, profesional bezala.

11. Gure buruari galderak egitea ezinbesteko faktorea da gure formaziorako. Ez gelditu erantzun errazekin, azaleko deskribapenekin, baieztapen eskematikoekin, errepikatzen diren esaldi elaboratuekin... sakonean dagoena begiratzeko gonbidapen bat da, ikusten ez den horretan arakatzea, gertatzen diren faktore ikusezin horien inguruan galdetzek norberaren pentsamendu bat izateko gaitasuna eraikitzen lagunduko digu; etengabe gai berriak eraikitzen edo berrietara irekia egon arren, eremu intelektualak irekitzen dituzten baieztapenak elaboratzen joan daiteke, erraztasunez eta sendo zapaltzen dugula sentitzen garen eremuak.



Iturria: Josune Urrutia, proiektuaren amaiera jardunaldiaren irudi grafikoa (abendua 2019)



Irakaskuntza eta ikerketa gizarte eraginarekin

12. HAINBAT PROPOSAMEN UNIBERTSITATE JARDUERAREN EBALUAZIO PARTE-HARTZAILE ETA ERALDATZAILERAKO

Gizarte ekintzaren lerro honetan, Rio Grande do Sul (Brasil) Unibertsitate Federaleko unibertsitate-hedapeneko politika nabarmentzen dugu, bere estatutueta baieztazen da unibertsitatearen helburu nagusia dela "goi mailako hezkuntza eta ezagutza filosofiko, zientifiko, artistiko eta teknologikoaren ekoizpena, irakaskuntza, ikerketa eta hedapenean barneratuta". Horrez gain, neurri zehatz multzo bat proposatzen dira gizartearen eta unibertsitatearen arteko lotura sendotzeko. Hauetatik, unibertsitate hedapeneko adibide modura hainbat printzipio nabarmentzen dugu:

"1. Gizartearekin elkarrekintza egin, gizarte eskaerei arreta eta kultura eta teknologia ekoizpen eta difusio ekintzak barneratuz; (...) 3. Unibertsitatearen eta gizartearen arteko bi norabideko erlazioa ziurtatu, garrantzitsuak diren ekoizpen kultural, artistiko eta teknologikoa garatzeko, ekoizteko eta babesteko, eskualde eta nazional izaera baieztatuz; (...) 5. Unibertsitate hedapena ziurtatu akademia prozesu garrantzitsu bezala ikaslearen formazioan, bai gradu mailan bai gradu-ondokoan, irakasleen kualifikazioan eta gizartearekin elkar-trukean; (...) 8. Ezagutza eskuratzea eta herrialdeko garapen teknologikoa eta soziala eskuratzea zabaldu; (...)"

Unibertsitatearen gizarte funtzioaren inguruko eztabaida, bereziki unibertsitate publikoetan, oraindik ez dago itxia. Hainbat kasutan, mota honetako ekintzak osagarritzat hartzen dira, curriculumetik kanpo, izaera borondatezkoa dute, eta, kasurik txarrean, giza eta finantza baliabideen galera bat bezala hartzen dira unibertsitatearen lehenetsuneko funtzioei dagokionez: ikerketa eta irakaskuntza.

EGFtik eta unibertsitateko irakasle eta langileekin izandako lankidetzen arabera, hego globaleko aliantzekin egindako lan bateratuen arabera, mintegiak, online foroak eta sistematizazioak Ekimuin prozesuaren eremuan, hau da iritsi garen konklusioa: helburua, benetan, unibertsitatea eraldatzea bada gizarte erantzukizunaren esparrutik, metodologia

pedagogiko kritiko eta parte-hartzaileen aplikazioa da jarraitu beharreko bidea. Proposatutako ekintzen artean, ikerketarekin eta irakaskuntzarekin zuzenean erlazionatuta dauden hedapeneko proiektu horiek, gizartearen eragin erreala sor dezakete, gizartearen eta unibertsitatearen arteko erlazioa berriz formulatuz. Lurraltera gerturatzea zuzeneko ekintzaren bidez graduatuko ikasleekin, irakasleekin eta ikertzaileekin, unibertsitate hedapeneko ideari erantzuten dio.

Baina, nola bideratu daiteke unibertsitatea, gizartearekin duen konpromiso horri erantzuten dion unibertsitate hedapeneko prozesu horietara? Prozesu honen esparruan irakasleak ezagutu ditugu eta beraiekin ikertu dugu, bai tokiko mailan bai estatu mailako erreferenteekin, gizarte oinarria duten tresna politiko-pedagogiko kritiko ezberdinak existitzen direla; hauek ikerketa zein irakaskuntzan finkatu daitezke.



a) Ikaskuntza ekintzan (IE)

Ikaskuntza Ekintzan ezinbesteko baldintza bat da “arazoak identifikatu, ulertu eta aztertu ahal izateko, baita errealistak diren eta erakundeen beharrekin lerrokatuta dauden ekintza proposamenak elaboratu” ahal izateko (Boni 2017:10). Valentziako Unibertsitat Politènicak (UPV) garatutako esperientzia hau ezagutu genuenetik, proiektuaren arduradunarekin erlazioa estutu zen, Alejandra Boni, ekarpen politiko pedagogiko eraldatzaileak eraikitzen jarraitzeko unibertsitate eremuan.

UPVren esperientzia erreferentzia bat bezala hartzen da unibertsitatea-gizartea konexioa sustatzen duten metodologietan, IE metodologia Garapenerako Lankidetzako Masterraren ikasgai baten barruan barneratzen delako. Prozesu hau, IE, testuinguru zehatz batean garatzen da arazo errealei aurre eginez Masterreko ikasleen aldetik, ikaskuntzei dagokionez erlazio elkarrekikoa eta horizontal batean, ikasgela teorikoak elikatzen dituzten praktika kritiko eta hausnartzaileak sortzea errazten du ikasgela barruan.

Ikaskuntza prozesu hau egoera ezberdinetara aplikagarria da, ikasleek arazoei aurre egin behar die eta aukera berriak esploratuz ikasten dute, sistemen errutinak aplikatu ordez (Pedler eta Burgoyne, 2008).

Boni aipatua, 2017). Horrez gain, ikasleen partaidetzak positiboki laguntzen die erakundeen ekimenei. Aurreko parrafoetan aipatutako UPVren programaren barruan, prozesu horren faseak sistematizatu dira, 5 etapez osatzen da: 1) Prestaketa; 2) Diagnostikoa; 3) Azterketa; 4) Ekintza proposamenak eta 5) emaitzen itzulketa/ difusioa.

Lehenengo fasean, ikasleak lan egingo duen aktoreekin trebatzen da eta ikerketa gidatu duten elementu teorikoak aurkezten dira. Ondoren (2.fasea), diagnostiko bat burutzen da bildutako informazioaren bidez, ikerketa gidatuko duten galderak jarraituz. Hirugarren fasean zehar, dagoen informazioa aztertzen da eta ikerketa emaitzak lortzen dira, eta hauek gainerako taldeekin partekatzeko espazioak planifikatzen dira. Laugarren eta bosgarren faseetan, ekintzarako proposamenak gauzatzen dira, eta ondoren (5.fasea), itzulketa egin, eztabaidatu eta osatu erakundeekin.


b) Ikaskuntza zerbitzua (IZ)

Zertaz ari gara ikaskuntza zerbitzuaz ari garenean? Ikaskuntza Zerbitzuko Espainiar Sarean eskaintzen den definizioan oinarritzen bagara, hezkuntza praktika hau definitu dezakegu, ikasleek komunitateko beharren inguruan ekiten duten bitartean ikasten duten hori bezala. Prozesu honetan ikasleak berak identifikatzen du hobetu daitekeen egoera bat bere hurbileko testuinguruan eta proiektu solidario bat garatzeko konpromisoa hartzen du, bere ezagutzak, trebeziak, baloreak eta jarrerak abian jarritz.

IErekin konparatzen badugu, goi-mailako unibertsitate faseetako ikasleei zuzenduago dagoena, ikaskuntza zerbitzua unibertsitate graduatuko hasierako faseetara bideratutako metodologia bat bezala osatzen da, baita ikastetxe eremuan ere. Edozein kasutan, metodologia honek unibertsitate hedapen eraldatzailearen adibide egokia da. Ekimuin prozesuaren esparruan euskal unibertsitate zerbitzuko eragile ezberdinek metodologia hau abian jarri dute eta lortutako emaitzak esanguratsuak izan dira.

EGFtik hezkuntza praktika mota honen garapenean kolaboratzen ari gara 2011-2012 ikasturtetik, UPV/ EHUko Gizarte Hezkuntzako Graduan, hainbat irakaslek ikasgeletan metodologia hau lantzearen aldeko apustu egin zuen, ibilbide curricularrean barneratuz. Geroztik, prozesu ezberdinak landu dira unibertsitatea txertatua dagoen ingurune horrekin lotzeko edo elkartzeko saiakerarekin eta bere ildo nagusia ESSren sensibilizazioa eta sustapena izan da aldaketako tresna bezala, zehazki, graduako ikasleen eta EGFko kideen eta Bitartean bere inklusioko programaren artean. Modu honetan planteatzen zen “zeharkako hurbilketa bat, era berean paraleloak eta konbergenteak diren bi munduen artean; unibertsitatea, aldaketako eta eraldaketako eragile estrategiko bezala, eta, gizarte erakundeak, aldaketa hori gauzatzen duena bezala” (EHU-HEGOA, 2018: 89).

Prozesu hau ez da baliagarria soilik ikaslegoarentzat edo komunitatearentzat, irakasleentzat ere baliagarria da, IZ prozesuan zehar bereganatutako konpetentziak ebaluatu ditzakete, eta, GKEentzat, bere zergatiak hedatu ditzakete ekintza eraldatzailea sendotzeko helburuarekin



c) MAL-GRAL Eraldatzaileak

UKS sarearekin lankidetzan, sare hau UPV/EHUko langile eta ikasleekin, GGKE eta Gipuzkoako gizarte mugimenduetako pertsonekin osatua dagoena, GRAL-MAL lan Eraldatzaileen gida bat osatu zen. Gida honen helburua da ikasleen artean sustatzea, lan hauen, ikerketa metodologiaren eta emaitzen orientazio marko teorikoetan barneratzea ikuspegi kritiko bat, aipatutako helburuekin koherentea dena, gizartearen eskubideak zabaltzen duen ezagutza bat ekoizten joateko. Horrez gain, sare honetatik ikuspuntu kritiko bat sustatu nahi da GJHen lotura abstraktuaren inguruan eta eztabaidatze kritiko eta politikorik gabe, unibertsitatetik bultzatutako dinamiken aurrean. Bertan, irizpidea GJHein dagoen lotura da, modu zabalean eta despolitizatua.

Gida hau zuzenduta dago lan hauek burutzen dituzten ikasleei eta tutoretza egiten duten irakasleei, lanaren diseinuan eta gauzatzean kontuan hartu beharreko puntuak zehaztuz, baita UKSk egiten duen proposamena ebaluatzeko eta gizarte difusioa egiteko. Horretarako, gizarte interesa sustatzen duten adierazle multzo bat barneratzea proposatzen da, izaera berritzaile eta eraldatzailearen arabera guztion ongizaterako. Lan hauek eraldatzaileak izateko eta UGE eta GJHein adostasunean egoteko, lanaren gizarte garrantziko

sarrerako atal bat izan behar dute. Bertan, ikasleak zehazki justifikatzen du bere GRAL/MAL lanak gizarte eraldaketari egiten dizkion ekarpenak eta guztion ongiaren alde egiten duela, ikuspegi teorikoen eta metodologikoen aukeraketa zehaztuz, baita bere lana zuzentzen den hartzaileak ere, onuradun nagusi bezala (eta hartzaileak hauek izatearen arrazoiak). Genero aniztasuna (barneratutako erreferentziak, gutxienez, %50 emakumeen ekarpenak izan beharko dira), jatorri aniztasuna (jakintzen ekologia) duten erreferente teorikoak eta gizarte erakundeek ekoiztutako materialak (argitaratutako txostenak, etab.) aukeratzearen aldeko apustu egin behar da

Ikuspegi metodologiko batetik, estrategia ezberdinak uztartu behar dira, besteak beste, lanaren hartzaile/ onuradun nagusien ahotsen bilketa barneratzen dutenak; lan hauek zuzenduta egon behar dute, gizarte bazterketa arriskuan dauden kolektiboetara, pobretutako komunitateetara edo/eta giza eskubideak urratzen zaizkien pertsona edo kolektiboetara.

Horrez gain, gizarte erakunde batekin koordinazioan idaztea proposatzen da. Erakunde honek ziurtagiri bat bidaliko du, non lanaren lankidetzaren eta laguntza ohartaraziko den, zuzentzen den helburu sozialetara eta erakundeak egindako kalifikazio bat, azken

kalifikazioaren %30 izango dena. Era berean, lana hizkuntza inklusibo batean idatziko da, genero ikuspegi batetik eta lurraldeko aniztasuna linguistikotik.

Mota honetako lanetan barneratzea proposatzen dugun beste alderdietako bat, Ekimuin prozesuan lankide diren Hego Globaleko erakundeekin garatzen ari gara. CEP Alforja erakundeak Oscar Jarak garatutako prozesu hau esperientzien sistematizazioa da ikuspegi kritikoetatik.

d) Esperientzia sistematizazioa GRAL/MAL lanen metodo eraldatzaile bezala

Herri Hezkuntzaren testuinguruan, esperientziak sistematizatu ez du esan nahi informazioak edo datuak biltzea, "gure esperientzietatik ikaskuntza kritikoak eskuratzea baizik. Horregatik, ez dugu soilik esaten "sistematizazioa", "esperientzien sistematizazioa" baizik (Jara, 2011:3). GRAL/MAL lanei ikuspegi hau barneratzeko ahalegin honetan, lanean zehar ikasleak bizitako prozesua ordenatzeaz eta berreraikitzeaz gain, prozesua modu kritikoan berrinterpretatu behar du eta ikaskuntzak eskuratu ondoren partekatu ahal izateko.



d) Esperientzien sistematizazio proposamena GRAL/MAL lanetan

GRAL/MAL lan eredu hau jarraitzeak ikasleari lagundu egiten dio bere esperientziak ikertzaile bezala sakonago ulertzeko, lortutako ikaskuntzak hobetu ahal izateko eta beste antzeko esperientziekin elkar trukatzeko. Hau da, prozesu hau kualitatiboago eginez, gainera, hausnarketa teorikoaren alde egiten du praktikan sortutako ezagutzetatik eta bereziki akademia planetan eragiteko, esperientzia errealetatik etorritako ikaskuntza zehatz eta finkatuetatik.

Jarraitu beharreko urratsak:

A ABIAPUNTUA:

a1: Ikasleak esperientzia batean partehartzea GKE edo beste mota bateko gizarte mugimendurekin, gizarte testuinguruan.

a2: Bizitako esperientziaren erregistroren bat izatea.

B HASIERAKO GALDERAK:

b1. Zertarako egin nahi dugu sistematizazio hau? (Helburua definitu)

b2. Zein esperientzia nahi d(it)ugu sistematizatu? (Sistematizazio objektua zehaztu)

b3. Zein alderdi sistematizatzea interesatzen zaigu esperientzia horietatik? (Sistematizazio ardatz bat zehaztu)

b.4 Zein informazio iturri erabiliko ditugu?

b.5 Zein prozedura jarraituko dugu?

C BIZITAKO PROZESUAREN BERRESKURAPENA:

c1. Historia berreraiki

c2. Informazioa antolatu eta sailkatu

D HAUSNARKETA SAKONA: ZERGATIK PASA ZEN PASA ZENA?

d1. Aztertu eta sintetizatu.

d.2 Prozesuaren interpretazio kritiko bat burutu.

E HELMUGA:

e1. Konklusioak formulatu

e2. Ikaskuntzak komunikatu

13. ORIENTAZIO ESTRATEGIKOAK UNIBERTSITATE ERALDATZAILE BAT SUSTATZEKO

Eremu estrategiko nagusia: Lotura esparrua unibertsitatea-gizartea

EGITURAZKO PROPOSAMENAK

Gizarte eraldaketarekin konpromiso bat onartu, bere eraginak “formazio-moduluen eskaintza” jakitera ematen duen eragile bat izateko mesedetan.

- Herritartasun kritikoko eraikuntzaren aldeko konpromiso bat onartu.
- Ikuspegi kritiko bat barneratzea sustatu unibertsitatearen esparruan sortzen diren ekintza eta proposamenetan.
- Unibertsitatearen hurbilketa sustatu herritarrenganako erakunde bezala, hauen beharrei erantzuten dien ezagutza sustatzeko helburuarekin.
- Gizarte transmisioaren aldeko lana instituzionalizatu, unibertsitatearen balio bat bezala.
- Irakaskuntza eta ikerketa eremuan dagoeneko gizarte eraldaketaren alde ekarpenak egiten duten ekintzak onartu eta sustatu.

- Unibertsitatean garatzen den gizarte ekintzailtzari edo/eta gizarte ekintzari onarpen zehatza eman.
- Gizarte ekintza, irakaskuntza eta ikerketaren arteko artikulazioa posible egiten duen erakunde-araudia sustatu.
- Unibertsitate-kalitate ereduak berriz pentsatu.
- Eremu formaletik haratago joan, sare-lana sustatu eta posible egin beste gizarte eragileekin modu jarraian eta egonkorrean, gizarte rola betetzeko.
- Unibertsitatearen erlazio ereduak berriz pentsatu erakunde bezala. Beste mota bateko botere-erlazio eraiki, horretarako prozesu pedagogiko espezifikokoak erabiliz.

APLIKATUTAKO PROPOSAMENAK

- Hurbileko testuinguruaren arazoetan eta erronketan oinarritutako curriculum bat landu, ikuspuntu global batetik eta elitismoa saihesten duen formazio integraleko ikuspegi batekin.
- Inguruko gizarte eragileekin sare-lana sustatu, lagundu eta erraztu.
- Irakasleengandik sortutako, beste gizarte eragileekin eta ikasleekin batera, ekimen eraldatzaileak lagundu eta erraztu. Erakunde-formalizazio gabeziak, ekimen eraldatzaileen jasangarritasuna, bertako parte diren eragileen (irakasleak, ikaslegoa, gizarte eragileak) ahalegin eta aukeren menpe geratzea egiten du.
- Unibertsitate irakasle rola berreskuratu eta erdigunean kokatu. Egun gehiegi sustatzen da merezimendura zuzendutako ikerketa eta horrela irakaslearen “laguntzaile, bideratzaile eta hezitzaile” rola galtzen da, pertsona baten formazio eta hezkuntza prozesuan hain garrantzitsua den rola.
- Unibertsitatean nola gizarte eragileetan euskarrizten diren esperientzia eraldatzaileen/ berritzaileen garapena bultzatu.

- hezkuntza eraldatzaile baten emaitzak eta eraginak modu zientifiko batean neurtzen laguntzen duten beste adierazle mota batzuk identifikatu eta eraiki.
- Unibertsitateko langileen partaidetza eskaini eta erraztu, lan komuneko tekniken inguruko formazio eta trebatzetan, partaidetza komunitarioa, gizarte abilezien eta abilezia parte-hartzaileen garapena, baita esperientzien sistematizaziokoak ere, besteak beste.
- Eragile-anitz sareak sustatu eta sortu. Beharrezkoa egiten da sarean lan egitea ere, ikaslegoaren eta unibertsitate inguruko eragile multzoaren partaidetza nola handitu lortzeko. Nola egin sare hauek gizartean ahalik eta intzidentzia gehiago izateko.
- Ikertzaileak, irakasleak eta ikasleak gizarte ekintzako proposamenak sortzera sustatu.
- Irakaslea-ikertzailea ereduak zabaltu. Unibertsitate langileentzat (irakaslea, ikertzailea) ibilbide profesional ezberdinen instituzionalizazioa erraztu, bere iker-eremu edo/eta gizarteari ekarpena egiteko interesaren arabera.

Lan eta intzidentzia lerro estrategikoak

1. IKERKETA ERALDATZAILEA

APLIKATUTAKO PROPOSAMENAK

- Unibertsitate ikerketan gizarte eraldaketaren alde egiten duten baloreak edo/eta orientazioak instituzionalizatu, bai unibertsitate langileek garatua bai ikasleek garatua.
- Ahalmena duten metodologiak sustatu eta instituzionalizatu, unibertsitate eta gizarte eragileen artean aliantzak eta sareak posible egiteko.
- Lankidetzaren tresnak eta espazioak definitu, diziplinak zeharkatzen dituen ikerketa bat sustatzeko eta posible egiteko.
- Intzidentzia politikoarentzat ahalmena duen ikerketa bultzatu.
- Ikerketa ereduak eta ezagutza ekoizpena berriz pentsatu.
- Gizarte ekintzaren esparruan garatzen diren proiektuak eta ikerketak gehiago ikustera ematea eta iritzi akademikoa sustatzen duten politikak eta lerrokatzeak finkatu.
- Ezagutzaren eraikuntza sustatu gizarte ekintzan lerrokatutako prozesuetatik.
- Unibertsitate beraren eta bere inguru-nearen hobekuntza etengabera zuzendutako ikerketa aplikatu bat bultzatu.
- Ezagutza eraikuntza kolektiboaren eta gizarte eragileekin burututako sare-lanaren eragina neurtzea posible egiten duten adierazleak identifikatu eta eraiki.
- Ikerketa bultzatu, gizarte ekintzaren intzidentziaren termino zientifikoetan.
- Ikertzaileei eta ikasleei espazioak, bitartekoak eta tresnak eskaini, gizarte eraldaketaren aldeko lanarentzat.
- Unibertsitatea-gizarte eragileak egilekidea sustatu ekintza zientifikoan eta ikerketan.



2. IRAKASKUNTZA ERALDATZAILEA

APLIKATUTAKO PROPOSAMENAK

- Ikaskuntza-Zerbitzua lankidetzaren sistema bultzatu eta instituzionalizatu gradu ezberdinetan, ezagutza eta gizarte balioa sortzeko tresna bezala.
- Irakaskuntza eremuan gizarte eraldaketara bideratutako orientazio bat instituzionalizatu.
- Ekimen edo/eta esperientzia eraldatzaileen sistematizazioa bultzatu eta erraztu irakaskuntza eremuan, diziplina guztientzat komuna den eredu baten bidez.
- Espazioak, bitartekoak eta tresnak izatea erraztu irakasleen aldetik, gizarte eraldaketara bideratutako irakaskuntza bat koordinatu eta garatu.
- Unibertsitate langilego osoarentzat (irakaskuntza-ikerketa-administrazio lanak) jasotzen diren funtzioek mugatu egiten dute, irakasle bakoitzaren norberaren ibilbide profesionala, hauek baliozkoagoak diren eta motibatuagoak dauden alderdi horietara egokitzea. Irakasle bakoitzari gehien motibatzen dioten funtzioetan, unibertsitate karreraren barruan, lan egitea posible egiten duen eredu bat sustatu. -curriculum berrikuspena-
- Formazio etengabeko prozesuak sustatu norbanako eta profesional mailan, hausnarketako espazio kritiko bat sortuz.
- Ikuspegi kritiko batetik berriz pentsatu ikasleei eskaintzen zaien lan motak, ikasgai ezberdinen esparruan gauzatzeko.



3. GIZARTE EKINTZA ERALDATZAILERA BIDERATUTAKO HEZKUNTZA PRAKTIKAK

APLIKATUTAKO PROPOSAMENAK

- Ikasleen partaidetza bultzatu eta sustatu unibertsitate eremu formal eta ez formalean.
- Ezagutzako eraikuntza kolektiboa sustatu, baita tokiko gizarte eragileen partaidetza ere.
- Proiektuetan ikasleen lankidetzak gizarte eragileekin, oso ikusgarri egiten dira ikasleentzat gizarte bidegabekeriak eta desberdinkeriak, ondorioz, beharrezkoa da sentsibilizazio lan honi jarraitutasun aukera ematea. Horretarako, beharrezkoa da hausnarketa posible egitea sentsibilizazioa nola sendotu eta posible egin daitekeen horren inguruan, unibertsitate hezkuntzaren eremutik.

4. KOORDINAZIOKO ESPAZIO ERALDATZAILE ESPEZIFIKOA

APLIKATUTAKO PROPOSAMENAK

- Unibertsitatean bertan gizarte eta unibertsitate eragile ezberdinen artean topaketa gune erabiltzeko espazio fisikoak ireki, unibertsitatean bertan garatzen ari diren ekintzen gainean "geratzeko eta hausnartzeko", eta, lankidetzak proiektuen identifikazioa posible egin.
- Esperientzien sistematizazioa posible egin, bai gizarte ekintzakoak bai praktika eta GRAL eta MAL arrakastatsuak eta gizarte eraginekoak.
- Unibertsitate eta gizarte eragileen arteko lankidetzak ikustera eman eta instituzionalizatu eta sare-lana sustatu eta erraztu.
- Erlazio eta elkar truke bat sustatu sare estrategikoan, topaketa puntualetatik haratago doana, nola ekimen eta ekintza eraldatzaileen, nola eragileen sareen jasangarritasunaren alde egiteko helburuarekin.
- Baliabide eta tresnen elkar trukeko sistema bat abian jartzea eragileen artean. Hainbat gauza partekatu daitezke: ideiak, espazioak, ezagutzak, baliabide materialak, etab.

14. BIBLIOGRAFIA

- AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO (2018). IV Plan Director de Cooperación para el Desarrollo 2018-2021.
- AGUADO, P. (2011). La competitividad: un elemento clave en la empleabilidad. *Arbor*, 187(3), 15-21.
- ARNOSO, M.; GASTÓN, A. et al (2019). De la cultura del éxito a la cultura del bien común y el buen vivir: caminando juntas hacia una universidad crítica y transformadora.
- CASADO, A. (2019). Cultura dual: Nuevas identidades en interacción universidad-sociedad. Madrid: Plaza y Valdés
- ARMSTRONG-STASSEN, M., y FUCHS, R. (1993). Production workers' reaction to a plant closing: the role of transfer, stress and support. *Anxiety, Stress and Coping*, 6, 201-214.
- BLUM, D. Y ULLMAN, C. (2012). The globalization and corporatization of education: the limits and liminality of the market mantra. *International Journal of Qualitative Studies in Education*, 25(4), 367-373.
- Bogado de Scheid, L.; Fedoruk, S. (2017). Rol de las universidades. Docencia-investigación y Extensión: Una relación imprescindible. Recuperado de <https://www.unl.edu.ar/iberoextension/dvd/archivos/ponencias/mesa3/rol-de-las-universidades-doc.pdf>. (consultado el 08/12/2019).
- BONI, S (2017). ¿Cómo vivimos en Benicalap? Una experiencia de aprendizaje en acción. <http://hdl.handle.net/10251/94742>
- BONI, S (2011). La universidad como debería ser. Propuestas desde el desarrollo humano para repensar la calidad de la universidad. Disponible en: https://www.researchgate.net/publication/280245006_La_universidad_como_debiera_ser_Propuestas_desde_el_desarrollo_humano_para_repensar_la_calidad_de_la_universidad/citation/download
- CABALLERO, G., LÓPEZ-MIGUENS, M.J. Y LAMPÓN, J. (2014). La universidad y su implicación con la empleabilidad de sus graduados. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas (REIS)*, 146, 23-45.
- CASADO, A. (2019). Cultura dual: Nuevas identidades en interacción universidad-sociedad. Madrid: Plaza y Valdés.
- CIENTÍFICAS EN CIFRAS 2017. (2017) Estadísticas e indicadores de la (des)igualdad de género en la formación y profesión científica. Ministerio de ciencias, innovación y universidades.
- CLEMENZA, C., FERRER, J. Y PELEKAIS, C. (2005). La calidad como elemento competitivo en las universidades. *Revista de Artes y Humanidades UNICA*, 6(14), 55-83.
- CORAGGIO, J.L. (2004). La gente o el capital: Desarrollo local y economía del trabajo. Quito: Abya Yala.
- CUYPER, N. Y WITTE, H. (2010). The impact of job insecurity and contract type on attitudes, well-being and behavioural reports: A psychological contract perspective. *Journal of Occupational and Organizational Psychology*, 79(3), 395-409.
- GNUTTI, R. (2017). El mundo sin trabajo: Pensando con Zygmunt Bauman. Barcelona: Icaria editorial.
- GONZÁLEZ, A., SCHMIDT, V., CASSULLO, G., MAGLIO, A.L., MINICHELLO, C., COGHLAN, G. Y MESSOULAM, N. (2004). Efectos de la inestabilidad laboral en los sentimientos de desesperanza y satisfacción. XI Jornadas de Investigación. Facultad de Psicología, universidad de Buenos Aires, Buenos Aires.
- GRACIA, F. J., RAMOS, J., PEIRÓ, J. M., CABALLER, A., Y SORA, B. (2011). Job attitudes, behaviours and health-related outcomes among different types of temporary workers. *International Labour Review*, 130, 253-275.
- GUILLÉN, L (2012). La responsabilidad social universitaria: un estudio de caso aplicado a la universidad Autónoma del Caribe en Barranquilla, Colombia en Memorias VIII Congreso Internacional de Educación Superior universidad 2012, La Habana, Cuba. Disponible en: http://www.scielo.org.mx/scielo.php?pid=S2007-28722014000300001&script=sci_arttext
- HEGOA (2018). Comunicaciones: universidad otra. Otros sujetos, otros conocimientos, otras alianzas para una universidad que transforma. II Jornadas. Bilbao. Disponible en: <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/390>



- HINTZE, S. (1996). Los excluidos del sistema. Encrucijadas, 4, 66-71.
- JARA, O (2011) Orientaciones teórico-prácticas para la sistematización de experiencias. Red Alforja. Costa Rica. Disponible en: <http://centroderecursos.alboan.org/sistematizacion/es/registros/6793-orientaciones-teorico-practicas-para-la>
- LEIBOVICH DE FIGUEROA, N. Y SCHUFER, M. (2004). Ecoevaluación psicológica de la inestabilidad laboral propiedades psicométricas del inventario de malestar percibido (IMPIL). XI Jornadas de Investigación. Facultad de Psicología, universidad de Buenos Aires, Buenos Aires.
- LLUCH, L., FERNÁNDEZ-FERRER, M., PONS, L. Y CANO, E. (2017). Competencias profesionales de los egresados universitarios: estudio de casos en cuatro titulaciones. Qurrriculum, 30, 49-64.
- MAGLIO, A.L., INJOQUE-RICLE, I. Y LEIBOVICH DE FIGUEROA, N. (2010). Inestabilidad laboral. Presentación de un modelo empírico acerca de su impacto psicológico. Orientación y sociedad, 10, 43-58.
- MANZANO-ARRONDO, V. (2011). El papel de la universidad en la sociedad de ignorantes. Científica, 12, 29-55.
- MARTÍNEZ-OTERO, V. (2014). Ansiedad en estudiantes universitarios: estudio de una muestra de alumnos de la Facultad de Educación. Ensayos: Revista de la Facultad de Educación de Albacete, 29(2), 63-78.
- NIETO, P. (2014). La formación dual como política activa de empleo. La escasa empleabilidad de los jóvenes sin cualificación como telón de fondo. Revista de información laboral, 2, 43-66.
- OBSERVATORIO DE BIOÉTICA Y DERECHO. Investigación e Innovación Responsable RRI). Universitat de Barcelona. Disponible en: <http://www.bioeticayderecho.ub.edu/es/rri>. Fecha de consulta: 23/11/2019
- PICHARDO, M. C., GARCÍA BERBÉN, A. B., DE LA FUENTE, J. Y JUSTICIA, F. (2007). El estudio de las expectativas en la universidad: análisis de trabajos empíricos y futuras líneas de investigación. Revista Electrónica de Investigación Educativa, 9(1). Recuperado de <http://www.scielo.org.mx/pdf/redie/v9n1/v9n1a1.pdf>
- POZZI, G. (2004). Algunas aproximaciones a los cambios en las representaciones sociales en los jóvenes universitarios. VI Jornadas de Sociología. Facultad de Ciencias Sociales, universidad de Buenos Aires, Buenos Aires.
- Red española de aprendizaje servicio. Disponible en <https://aprendizajeservicio.net/que-es-el-aps/>
- RODRÍGUEZ, S., PRADES, A. Y BASART, A. (2007). Accions per facilitar la inserció laboral. En A. Serra (Ed.), Educació superior i treball a Catalunya: Anàlisi dels factors d'inserció laboral (329-368). Recuperado de http://www.aqu.cat/doc/doc_97543694_1.pdf
- SORA, B., CABALLER, A., PEIRÓ, J.M. (2014). La inseguridad laboral y sus consecuencias en un contexto de crisis económica. Papeles del Psicólogo, 35(1), 15-21.
- SRNICEK, N. Y WILLIAMS A. (2015). Inventing the Future: Postcapitalism and a World Without Work. Londres: Verso Books.
- TAIBÓ, C. (2012). ¡Espabilemos!: Argumentos desde el 15-M. Madrid: Los libros de la catarata.

